

# Jaia eta etorkizuneko erronkak uztartuko dituzte Eskola Txikien Festan

2011/05/02

Nork [Alegialdeko Hitza](#)



Eskola Txikien Festaren aurkezpena egin dute, gaur, Donostian. Festa Abaltzisketan izango da, ekainaren 12an, eta horren berri eman dute bertako Txalburu Eskolako ordezkariak zein EHIGE gurasoen elkarteko eta Eskola Txikien gurasoen elkarteko ordezkariak. Txalburu Eskolako gurasoa den Joxe Ramon Mujikak azaldu duenez, “jaia eta ospakizuna uztartu nahi ditugu etorkizuneko erronkekin. Ez baitugu ulertzen Abaltzisketarik eskola txikirik gabe”. Mujikaz gain, prentsaurrekoan izan dira Pilar Maiza Txalburu Eskolako zuzendaria, Mikel Olano Gipuzkoako Eskola Txikien gurasoen elkartearen koordinatzailea eta EHIGEko Imanol Zubizarreta. Txalburu Eskolako zenbait ikasle ere bertan izan dira.

1988tik urtero antolatzen da Eskola Txikien Festa. Iaz ere Tolosaldean izan zen, Altzon. Mikel Olanok azaldu duenez, festaren helburua “denak elkartu eta nahiz eta txikiak izan beren garrantzia azpimarratzea da”. Olanok gaineratu duenez, “garbi eduki behar dugu eskola herri txikietako bihotza dela”. Hain justu, elkarrekin «egun eder bat pasatzea» festaren helburuetako bat dela azaldu dute, baina «benetako helburua haratago doa», esan du Olanok. «Saiatu behar dugu honen aitzakian ahalik eta oihartzun handiena lortzen, gizarteari nor garen eta zer garrantzia daukagun erakusten», gaineratu du. Festak eskola txikientzat eta herri eta auzo txikientzat «zeresan handi» duela azaldu du Olanok. «Honek denak konpromiso eta lan handia eskatzen du, baina egin beharra dago».

## **37 ikasle**

Txalburu Eskolan egun 37 ikasle daude, lau gelatan banatuta. 25 urte ingurutan ez zen eskolarik izan. 1975ean itxi zen, eta 1999 irailean ireki zen berriro, haur hezkuntza mailako gela bat, Amezketako Zumadi Eskolaren barruan. 2004/2005 ikasturtean bere eskola lortu zuen berriro Abaltzisketak: Haur Hezkuntza osoa eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako izan zituen. 2006ko abenduan jaso zuten baimena Lehen Hezkuntza osoa herrian izateko.

Egun dauden ikasleak lau gelatan banatzen dira. Jangela zerbitzua ere badute, eta egunero 16 ikaslek bazkaltzen dute herriko Ostatu Tabernan. Joxe Ramon Mujikak dioenez, «Txalburu Eskola sortu zen unetik hona bide luzea jorratu behar izan dugu. Bide honetan gauza asko lortu ditugu, eta gaur egun harro sentitu gaitezke daukagun guztiarekin. Baina esan ohi den bezala, beti dago zer hobetua eta zer egina».